



Zientzia-fikzioa

Teknologiaren aurka ezer ez daukatela diote. Teknologiaren pertzepzio eta erabilera batzuen arriskuak plazaratzen saiatu direla, modu ahalik eta atseginez. Arzoen hitzetan, «ezker eta eskuin» egiten dute



«Geografia politiko berria sortzen ari da mundu birtualean»



«Zientzia guru, dogma eta liburu sakratuez hedatzen badugu, gaizki goaz»

Andoni Alonso, berriz, Arthur C. Clarken aipamen bat dakarkigu gogora: «Hark esana da teknologia konplexu oro magia bezalakoa dela, eta hori uneoro ari da funtzionatzen gure imaginario kolektiboan». Eta imaginario kolektibo horretan beste irudi batzuei ere lekua egin behar zaiela uste dute. Horregatik, proiektu kolektiboa da eurena. Batez ere, sortu duten webgunea (www.siruela.com/ncd) indartu nahi dute eztabaida plaza moduan. «Teknologia berriak ekarri digun irakaspenetako bat horixe da, lan kolektiboaren garrantzia». Eta lan kolektibo horretan, arlo guztietako jendearen parte hartzea beharrezkoa dela diote, teknologiaren erabilera asko asmatzeko daudelakoan. Zientzialarien parte hartzea ere, noski, ezinbestekotzat dute, zientziaren izenean esaten diren astakeriak uxatzen haste aldera.



Krutwigen Sophopolis eta Jainkoaren Hiri Berria

Zorionez, Sophopolisen teknoeugenesia baztertzeo eta Euskal Herria gaurko ziberkulturan eta teleteknologiatan txertatzeko baditugu bide gehiago, besteak beste, Andoni Alonso eta Iñaki Arzozek erakutsi dizkigutenak, 1999ko *Euskal Herri Digitala 1.0* liburua (Gaiak) edo 2002ko *La Nueva Ciudad de Dios* (Siruela). Ibilbide honetan erakutsi digute Sophopolisek ez duela intelektualen ghettoa izan behar, ezta jainkoen jauregia ere. Eta, are gehiago, Internet eta teleteknologiaren garaian gure bizimoduaren arazoak erantzunak ez daudela ez ziberintelektualen eskuetan, ez informatikaren enpresen profeten eskuetan, ezta informazioaren industriaren igarleen eskuetan ere, hiritar guztien eskuetan baizik, ideologia digitalista eta teknoautoritariotik kanpo. Ziberkulturraren mito eta jainko berriak hil behar ditugu hiritarren ziberhiria sor dadin. euskal ziberhiria. ■